

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 465/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onspena ematea Indesa 2010 SLko akziodunen batzar nagusian aldundiak izango duen ordezkaria izendatzeari

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8.artikuluari, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da Arro Erakunde horretan Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkari izendatzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Gizarte Politiken Saileko foru diputatu Emilio Sola Ballojera izendatzea, Indesa 2010 SL (Foru Administrazioaren partaidetzako Erakundearen Erregistroan 312 zenbakia du) sozietate mugatuaren Batzar Orokorreko kide izan dadin Arabako Foru Aldundiaren ordezkari izan eta aldi berean M. Antonia Olabarrieta Ibarrodo kargutik kentzea.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN